



Carolina Santamarina

LaDigitaldelReina proiektuaren arduraduna

Reina Sofia Arte Zentro Museo Nazionalea, Liburutegi eta Dokumentazio Saila

Carolina Santamarina dut izena, eta Espainia eta Frantzia artean hazi nintzen. Filologia Alemaneko lizentziako ikasketak egin nituen, eta hainbat urtez Munichen bizitzera eraman ninduen horrek. Espainiara itzuli ondoren, argitalpenaren arloan egindako lanez gainera, Artxibo Historiko Nazionaleko Liburutegiaren arduradun izan nintzen, Estatuko Administrazio Orokorreko Liburutegien laguntzaile gisa. Handik hiru urtera, pergaminoetatik arlo digitalerako jauzia egin nuen, [CSICen Liburutegi Sararentzako](#) bilduma digitalak garatzeko politika sustatzeko xedez. Politika bateratu hari loturik, digitalizazioaren eta digitalizazio-proiektuak kudeatzeko eta koordinatzeko zuzendaritza-plana sortu zen, eta, horren emaitza gisa, "[Simurg, CSICen funts digitalizatuak](#)" liburutegi digitala. Lehengo lepotik burua eginez, 2016an esperientzia errepikatu nuen, beste liburutegi digital baten ardura harturik, [Arte Reina Sofia Arte Zentro Museo Nazionalekoarena](#) oraingoan.

Proiektu horrek liburutegiaren esparru eksklusiboa gainditzen du, askotariko materialak biltzen baititu: museoko materiala, artxiboetakoa, ikus-entzunezkoak, etab. Erronka tekniko eta profesional izugarri aberasgarria da, irekitasuna, zeharkako ikuspegia eta sorkuntza-espazio berriak adierazten dituelako. Ildo horretatik, funtsezkoa da egile-eskubideen kudeaketa "praktiko eta bideragarri" baterantz jotzea, copyrightaren 80 urteko indarraldi legalaren linboan itzalitako espektro kultural oso bati sarbidea eta ikusgarritasuna eman ahal izateko. LaDigitaldelReina 2022an ireki berri da, eta lehen urratsa baino ez da teknika artearen eta hitzaren zerbitzura jarriz humanitate digitalak hedatzeko eta garatzeko, zeina baita garrantzi handiko jarduera, kontuan harturik haien potentzial ikaragarria eta elkarlotura aberasgarriak.

Hors texte. LaDigitaldelReina eta arte oharduna

Hitzaldi honetan, LaDigitaldelReina plataforma aurkeztuko dugu, obraren eta dokumentuaren arteko mugak eta erlazioak ikertzeko bitarteko modura pentsatutako ekimena, izaera desberdinetako objektuen arteko erlazioetatik sinergiak eratortzea ahalbidetzen duena, ardatz harturik memoria, eta ez gaurkotasuna.

LaDigitaldelReinak helburu nagusizat du Museoari buruzko eta, oro har, arte garaikideari buruzko lan- eta ikerketa-tresna izatea. Ildo horretatik, kolokan jarriko dugu ondare-erakundeen

eta ikerketa-erakundeen arteko bereizketa klasikoa, jabetza-intelektualari muga jakin batzuk ezartzeari eragiten dion heinean.

Egile-eskubideak mugatzeaz mintzo garenean, ikerketaren defentsaren erabili ohi da argudio gisa ia beti, gizarteak aurrera egin dezan funtsezkoa eta ezinbestekoa dela iritzita. Eta ikerketari buruz pentsatzean, unibertsitate eta irakaskuntzako erakunde publikoetan pentsatu ohi da; ez, ordea, ondare-erakundeetan.

Mundua eta teknologia etengabe bilakatzen ari dira, ordea, eta esparru zurrun horiek malgutzeko premia dugu, ikerketa geldi ez dadin unibertsitate-eremuari soilik atxikita. Ondare-erakundeak –ez soilik museoak, baita liburutegiak, artxiboak eta abar ere– aspaldi ez dira ikerketarako baliabide pasiboak; aitzitik, aktiboki laguntzen diote ikerketari.

Eta, ildo horri loturik, “Annotations” proiektua –arteko katalogoak “hustuz” ikerketari laguntzen dion proiektu aitzindaria– aurkeztu nahiko genuke, eta planteatu proiektu hori adimen artifizialaren bidez egin ote zitekeen eta nola egin ote zitekeen.